

Eguzki beltza



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



DOM CAMPISTRON

Joan den urte hondarrean atera da *L'affaire Ange Soleil, le dépeceur d'Aubervilliers* (Ange Soleil afera, Aubervilliers-ko puskatzailea) eleberria, Christelle Lozère-k idatzia. Lozère da artearen historiako irakasle bakarra Antilletako Unibertsitatean, zehazkiago, Martinikan. Bere amaren aldetik erro euskaldunak ditu, eta aita Guadalupeko independentziaren aldeko militantea zen. Lozère berezitua da margolaritzaren azterketan, eta bereziki arte kolonialean. Bere ikerketen bidez, saiatzten da Antilletako artistak aitzinera ematen, bereziki XVIII.-XIX. mendekoak eta XX. mende hastapenekoak. Alabaina, garai haietan, Antilletan sortu margolari, zizelkari edo idazleak ere, onak baldin baziren, Parisen egiten baldin bazituzten ikasketak eta metropolian lortzen bazuten arrakasta, frantses gisa aurkeztuak ziren, ukatzen zitzaaien haien jatorri antillarra, are gehiago mestizoak baldin baziren, eta oraino gehiago emazteak baldin baziren.

Christelle Lozère xedea da artista haiek ezagutaraztea, antillar gisa aurkeztuta, eta azaltzea zoin baldintza soziopolitikotan ibili ziren. Gomendatzen dizuet ikerlari horren kapsulak begiratzeari, Interneten, *Rendez-vous numéri-*

ques en histoire de l'art des Antilles (Antilletako artearen historiako hitzordu numerikoak) deitzen direnak, adibidez, Jenny Prinssay-ri buruzkoa. Lozère lanean aritu da Clark Art Institute-en, Estatu Batuetan, eta Frantzia Institut National de l'Art erakundean, Villa Vassiliev etxean eta Musée du Quai Branly museoan. Haren tesia, erakusketa kolonialez XIX. mendearen bigarren erdian, Orsay museoak sariztatu zuen.

Baina beste jiterik ere badu Christelle Lozère: hastapenean aipatu bezala, eleberri bat idatzi berri du, eleberri historiko bat, hain zuzen ere, polizia-eleberri formakoa. Egiatzko gertakari batean oinarritua da: Ange Soleil gizon biziki karrismatikoa zen, seduzitzailea, perbertso nartzisista, hainbat emazte engainatu zituen eta bere emazte martinikarra basaki hil zuena Parisen, 1935ean. Istorio hori, garaian, hedabide guzietan agertu zen, lehen berri gisa, baina arrunt aherentzia da, egun. Liburu horrek kalitate literarioak baditu, segurki, suspensez betea delako, eleberri beltzen giro iluna ongi erakartzen duelako, eta irakurleak harrapatua uzten duelako. Horrez gain, 1930eko hamarkadako Parisko komunitate antillarrean murgiltzen da irakurlea, jazz kabaretetan, Ange Solei-

len biktima, Séverine Soleil, dantzaria baitzen holako tokietan. 1935. urtean, presesi, Aimé Césaire-k plazaratu zuen *L'étudiant noir* aldizkariaren lehen zenbakia. Hori ere aipatua zaigu Lozère obran, bai eta garaiko giro soziopolitiko ere: populismoaren igoera, "lanjer beltzaren" beldurra, "Soleil" aferaren instrumentalizazioa (eraiketa gertatu zen Frantzia prestatzen ari zirelarik Antillen jabetzaren 300. urteurrenaren ospakizunak).

Christelle Lozère Ange Soleilen auziko jatorrizko dokumentuetan oinarritu da, garaiko prentsan ere bai, eta bere xedea da hiltzaile makiabeliko haren biktimak omentzea, horiei hitza emanez.

Aimé Césairek izendatzen du gaiztagin izugarri hura *Cahier d'un retour au pays natal* (Sorterrirako itzuleraren koaderno) liburuan: "Soleil, Ange Soleil, Eguzkiaren Aingeru kuskulatua, higuinduraren uren igerika berdetsu eta gozotik haratagoko jauziarendako". Jean Genet-ek ere itxuratu zuen Ange Soleilen pertsonaia fantasmata *Notre Dame des Fleurs* (Loreen geure dama) obran.

Arrazakeria eta beldurraren aro garaikidean, feminizidioek irauten duten une hauetan, balio du, zinez, eleberri hau irakurtzeak. ●